SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko azaroak 28, ostirala • 2. aldia • 487. zenbakia



Ikus spota www.guaixe.net-en.

Guaixe: 20 urte elkarrekin

guaixe.eus

PRES TOKIKOM

Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, abenduaren 3tik aurrera, www.guaixe.eus izanen da gure webgunearen helbide berria. Horrela, Guaixe Interneteko euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen parte bihurtuko da. .EUS domeinuak Interneteko euskararen komunitatea kohesionatuko du.

Zergatik .EUS?

>> 5

Nafarroako Elikagaien Bankuak jaki bilketa eginen du asteburuan

Gaur eta bihar premia gehien duten familiendako jakiak jasoko dituzte boluntarioek

>> 7

Euskal Ekitaldiak prest

Abenduaren 3tik aurrerako egitaraua

>> 3

Sakanako kirolari onenak

Aukera zabalaren artean hautatu dituzte

>> 13

Dozena erdi odol-emaile arbizuar omenduak

Urrezko eta zilarrezko hiruna domina banatu zituzten, arduradun aldaketa egitearekin batera

>> 6





ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

ZORIONAK!! 11 urte beteko dituzu laister. Topa bostak, Ehki, eta egun zoragarria izan!!

Eneko Reparaz Anabitarte
ZORIONAK zuri, zorionak beti, zorionak Eneko!!!. Muxu handi-handia aitona eta amonaren partez.

ZORIONAK!! Berrogeietatik gora, jijijiji. Aupa Mario!! Amatxoren, Amaiaren eta Ainhoaren partetik. Urtebetetze zoriontsua izan dezazula. Muxu asko!

azaroak-abenduak 28-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

El Drogas rhythm & Blues Band. Azaroaren 29an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Etxarriko musika eskolako kantu ikasleak kontzertura. Azaroaren 29an, larunbatean, 20:30ean, Altsasuko elizan.

Karroña eta Zartako-k. Azaroaren 29an, larunbatean 23:00etan Arbizuko Argibidea elkartean.

Pancho Balbuena. Azaroaren 29 larunbatean, 23:30ean Olatzagutiko Clinkerren.

La gran orquesta republicana. Abenduaren 2an, asteartean, 20:00etan Altsasuko gaztetxean.

Erkudengo Ama abesbatza. Abenduaren 3an, asteazkenean, 13:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los del Rayo. Abenduaren 7an, igandean, 19:00etan Lakuntzako Sorgiñak tabernan.

Antzerkia

Txanogorritxo rock. Azaroaren 29an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Txanogorritxo rock. Azaroaren 30ean, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Pailazoak

Txo, Mikmak txikia. Abenduaren 3an, asteazkenean, 17:00etan Irurtzungo kiroldegian. **Pirritx, Porrotx eta Mari Motots.**

Ipuin kontalaria

Nik ere hegan egin nahi nuke. Azaroaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Eñaut Gorbea.**

Zinema

El hombre de al lado. Azaroaren 28an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Perdida. Azaroaren 28an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 30ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Aviones. Azaroaren 30ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

El juez. Abenduaren 5ean, ostiralean, 22:00etan; abenduaren 6an, larunbatean, 20:10ean eta abenduaren 7an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hurrak eta lapurrak. Abenduaren 7an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Film laburrak

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna. Azaroaren 28tik 29ra, ostiraletik domekara, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **12-16 urte.**

Mendi irteerak

Urbasako berezia. Azaroaren 30ean, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

Argako itzulia. Abenduaren 7an, igandean, goizean. **Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Lareoko urtegia. Azaroaren 30ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 55 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

San Joan baleontzia. Abenduaren 6an, larunbatean, Irurtzundik. **Aizpea euskaltzaleon topagunea.**

Erakusketak

Hiru keinu iraganari. Azaroaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Trenak 150 urte Altsasun. Abenduaren 2tik 21era astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Pintura detritus. Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Hitzaldiak

Uxue Barkos eta Manu Aierdi. Azaroaren 28an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Zer eta nola kudeatzen da pentsioen fondoa. Abenduaren 1ean, astelehenean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria: Edmundo Fayanás. Sasoia.**

Alex Txikon. Abenduaren 3an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko Txioka haur ikastolako areto nagusian.

Tailerrak

Abestietan entzuten duzunaz kontziente zara? Azaroaren 28tik 30era, ostiraletik domekara, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Gaupasa. Azaroaren 29an, larunbatean, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Mirentxin gidariak, elkartasun afaria. Abenduaren 2an, asteartean, 22:15ean Altsasuko Zubiondo elkartean.

Euskararen eguna. Herri jolasak. Abenduaren 3an, asteazkenean, 12:00etan Altsasuko Foru plazan. Iñigo Aritza ikastola.

Futbolin txapelketa. Abenduaren 3an, asteazkenean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zorri azoka, merkatu soziala. Abenduaren 7an, igandean, 11:30etik 15:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Mahai jolasen txapelketa. Abenduaren 7an, domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

EHEko kide eta kide ohien batzarra. Azaroaren 28an, ostiralean, 18:30etik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. Ondoren, afaria.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 28an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Arbizuko ikastolak 40. urteurrena. Azaroaren 29an, larunbatean, 12:00etan Arbizuko plazan.

Gure ikurren alde. Inposiziorik ez! Azaroaren 29an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Foru plazatik manifestazioa.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Pentsioen fondoak ez daude krisian. Abenduaren 1ean, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. Sasoia.

Emakume abertzaleon VI. Topaketa feministen aurkezpena. Abenduaren 2an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean.

Emakume abertzaleon VI. Topaketa feministen aurkezpena. Abenduaren 5ean, ostiralean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Abenduaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Herri ostiralak. Abenduaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan mobilizazioa, gero afaria. **Ospa!**

Irurtzun

Euskarazko ekitaldi sorta prestatu du Aizpeak

Asteazkenean, Euskararen Nazioarteko Egunean zabalduko dute egitaraua Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eta hilaren 29ra arte irurtzundar guztiendako moduko eskaintza dago

Argazki oina.

Hutsik egin gabe, urteroko hitzorduari fidel, Irurtzungo Aizpea Euskaltzaleen Topaguneak prest du dagoeneko Euskal Ekitaldiak 2014 egitaraua, Irurtzungo Udalaren Kultur Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatu duena. Aizpeatik antolatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte irurtzundarrak. Gainera saria izan dezakete, parte-hartzaile guztien artean Erriberako euskalgintzaren aldeko Errigorako hiru zare zozketatuko baitira.

Egitaraua prestatzerakoan Aizpeako kideek irurtzundarrei euskaraz aritzeko espazioak, guneak, eskaini nahi dizkiete. Ekitaldietan elkartzen diren irurtzundarrak euskaldunak direla konturaraztea da helburua, Irurtzunen euskaraz norekin hitz egin badagoela ohartarazteko. Aurkeztutako egitarauak, beraz, irurtzundarrei elkarrekin euskaraz aritzeko plazak eskaintzea du helburu. Bide batez, Irurtzunen euskal kulturari ere bultzada eman nahi dio Aizpeak. Abenduan herritarrek zerekin gozatu badutela uste dute antolatzaileek.

Hasieran balearekin lotura

Ohikoa den moduan Euskal Herriko pailazo ospetsuenek zabalduko dute egitaraua, aurreko urteetan bezala ikuskizun berria mustuz. Aurten *Txo, mikmak txikia* ikuskizun berria ekarriko dute Irurtzunera. Itsasoaren beste aldetik Euskal Herrira heldu den Mikmak indio Roke aitonarekin topo egin du. Roke zurgina da eta esna dagoela zurezko ametsak egiten ditu. Bestalde, plastikozko zabortegia bihurtu den itsasotik bale bat gaixo iritsi da. Abiapuntu horrekin txikienek ederki pasatzeko aukera izanen dute.

Baleekin lotura du Euskal Ekitaldiko bigarren eskaintzak, Aizpeak Albaola fundazioaren Pasaiako ontziolara bisita prestatu baitu. Han, Sakanako haritzekin, Ternuan urperatutako San Joan baleontziaren errepika egiten ari dira, eta lanak ikusteko aukera izanen da heldu den larunbatean.

Sarrerak eta txartelak

Asteazkeneko pailazoen emanaldirako sarrerak Martxuetan eta Pikuxarren daude 6 eurotan salgai. Bestalde, Pasaiara San Joan baleontzia nola egiten ari diren ikustera joan nahi duenak 20 euro ordaindu beharko du (bazkaria barne dago). Azkenik, bertso-afarira joan nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu. Ikasleek eta langabeek, berriz, 10.

Irakurketarako gonbitea

Abenduaren 17an Ernesto Prat Urzainkik bere liburua aurkeztuko du Irurtzungo liburutegian. Umorea, sexua eta klandestinitateko pasadizoak jasotzen dira liburuan. Aizpeatik posible balitz liburua irakurrita joatea gonbidatu dute, hala sortutako kezkak, zalantzak, sortutako galderak eta bestelakoak egileak argituko baititu.

Egitaraua

Txo, Mikmak txikia. Abenduaren 3an, asteazkenean, 17:00etan kiroldegian. Pirritx, Porrotx Eta Mari Motots.

Albaolara txangoa. Abenduaren 6an, larunbatean, 9:00etan autobus geltokitik.

Euskal Herriko altxorren barrena. Abenduaren 12an, ostiralean, 20:00etan Iratxo elkartean. Arkaitz Astiazaranen bideo emanaldia.

Orpoz orpo liburuaren aurkezpena. Abenduaren 17an, asteazkenean, 18:30ean liburutegian. Ernesto Prat Urzainki.

Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Abenduaren 20an, larunbatean, 21:30ean Iratxo elkartean bertso afaria.

Euskarak 365 egun lip-duba. Abenduaren 21ean, igandean, 10:00etan.

Lip-duba, ITB eta Gure Esku Dago. Abenduaren 29an, astelehenean, 18:30ean eta 19:00etan kultur etxean.

Euskarazko oparien ataria

Euskarazko Produktuen Katalogoa 2014-2015 jaso dute azaroan ibarreko makina bat etxetan. Eguberrietan haur eta gazteei opariak egiteko ohitura zabaldua dago eta katalogo horren bidez euskarazko eskaintzaren berri eman nahi zaie gurasoei. 16 urte bitarteko haur eta gazteendako produktuak biltzen dira. Gaztetxoak aisialdiaz goza dezaten produktu bereziak, egokiak eta interesgarriak. Katalogoan era askotako produktuak opatu daitezke: gurasoendako materialak, jostailuak eta jokoak, liburuak, komikiak, aldizkariak, informatika eta aplikazioak, DVD filmak eta liburuak. Merkatuan dauden makina bat produktu berriren eta kalitatezkoen erreferentzia jasotzen du katalogoak. Beraz, zer oparitu ez dakitenendako aparteko laguntza.

Kopuruak

Mank-eko Euskara Zerbitzuak 0 eta 2 urte bitarteko umeak dauden etxeetara postaz bidali du katalogoaren ale bana. 3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteek ikastetxean jaso dute katalogoa. Eta, gainera, liburu-dendetan ere utzi dituzte. Guztira Mank-eko euskara zerbitzuak 3.400 ale banatu ditu ibarrean. Katalogoa Euskal Herriko beste euskara zerbitzuekin batera argitaratzen da eta egun hauetan 130.000 ale izan dira banatu direnak. Katalogoaren 17. edizioa da aurtengoa.

Sarean urte guztian

www.katalogoa.org web orrian paperezko bertsioan baino produktu gehiago aurkitu daitezke, erraz eta azkar bilatzeko moduan. Web orria maiz eguneratzen dute argitaletxeek berek eta urte guztian argitaratzen diren produktuak kontsultatzeko aukera ematen du. Gainera, aukera ematen du atsegin den produkturen bat norbaiti aholkatzeko.

astekoa

Aingeru Mikeo

Hauteskunde usaina

Abenduaren 3an Nafarroaren Eguna eta Euskararen Nazioarteko Eguna. Egun horren ospakizunak baliatuko dituzte alderdi politikoek hauteskunde usaina barreiatzeko. Jada, baditugu inkestak, talde politikoak makinaria koipetzen ari dira -hautagaiak, programak…-, hedabideak bazterrak nahasten, Estatu egitura kolokan Kataluniaren ausardia tarteko, eta herritar xumeak itxaropen eta amets.

Hasi dira alderdiak elkarri mokoka, mus partida batean bezala, handira eta enbidoak bata bestearen gainean. Batzuei dagoeneko igartzen hasi zaizkie ahoberotasunak, eta gehienak ere ozenki iragarriz hobariak, nahiz, batek berak ere, ez zehaztu nola gauzatuko dituzten miragriak.

Halere, promesa hutsalak asko baina neurri zehatzak eskas, esaterako, etxegabetze mingarri bat bera ere gehiago ez gertatzeko edo muturreko txirotasuna estrukturala ez bihurtzeko (egiturazko funtsa), bertako eta kalitatezko ekonomia errealasustatzeko (pizgarriak), ustelkeriari borroka (araudi zorrotza), langabeziari aurre egiteko (plan zehatza), eta segi.

Jendarteko pertsona ororen duintasuna eta ongizatea bermatzen ez duen politika porrota da. Eta gaur egun, datu makroekonomiko baikorrak, duguna politika porrota da. Izen-abizenak jarrita, Carmen Martinez Ayuso 85 urteko emakume valladolidtarraren etxegabetze mingarria onartu duen jendartea jendarte porrota da, eta, zoritxarrez, hori egunero gertatzen ari da. Eta ohitu egin gara!

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Ardura

Azken asteetan arduraturik jarraitu dugu Altsasun eman den eztabaida Garapen Agentziaren inguruan. Urte hauetan lorturiko adostasuna ez ote zen apurtuko pentsatu izan dugu. Azkenean badirudi gauzak bere onera bueltatu direla eta garapen agentziak bere lana burutzeko behar duen dirua jasoko duela. Herri guztiek bere apurra jarriko dute horretarako zeren guztiontzako onuragarria da martxan jarri dugun ekimen hau.

Plenoan izandako eztabaida arretaz jarraitu dugu eta gutun honen bitartez, berriro ere, batzen gaituena azaldu nahi dugu. Ez dugu uste, hauteskunde kalkulu txikiengatik banatzen gaituena handitu behar dugunik. Hau da errealitatea, Sakanan, 1.564 langabetu daude, eta hauen egoerak, ezinbestean, gure lana eta esfortzu osoa exijitzen ditu. Hau izan behar du, eragile guztion lana zuzendu behar duen kalkulu bakarra. Berdin du alderdi politiko, eragile sozial edota administrazioa izan, Sakanaren gaur egungo egoera zera da 2009tik, langabetu kopurua ez dela hortik jaitsi.

Orain arte eginiko ibilbidea eredugarria izan da. Ezberdinen arteko elkarlanak lehenengo bailararen diagnostikoa ekarri zuen, ondoren plan estrategikoaren eratzea eta orain plan hori burutzeko behar ditugun lanabesak lortzeko bidean gaude. Denok batera, helburu berdinarekin. Orain Nafarroako Parlamentuan dago pilota, eta badirudi alderdien oniritzia izan duela Sakanatik bidalitako proposamena. Badakigu herritarren parte-hartzerik gabe ez dagoela ezer aurrera eramaterik, eta eragile soziala garen heinean lan horretan murgilduko gara. Helburua argia da, gure bailaran lana egiteko eta bizitzeko eskubidea bermatua izatea bertako bizilagun guztientzat.

Abian

hara zer dien

Seme-alabei drogen arloan laguntzea

Gaurkoan, familiek eta babes faktoreek gure seme-alabengan duten eraginaz arituko gara, drogen alderditik ikusita. Familiak kontsumoen aurrean kontuan izan ditzaketen gomendioak ere aipatuko ditugu.

Badakigu, familiaren eragina oso garrantzitsua dela seme-alabengan, baina ez da bakarra (lagunak, gizartea...). Hori dela eta, garrantzitsua da jakitea zer egin dezakegun etxean drogen prebentzioa sustatzeko eta seme-alaben inguruko eragin negatiboak ahalik eta gehien neutralizatzeko.

Nerabe batek hainbat arrazoirengatik har ditzake drogak: lotsa gainditzeagatik, helduago sentitzeagatik, bere autonomia sendotzeagatik, gau osoa dantzan aritzeagatik, lagunen aurrean irudi zehatza sorrarazteagatik, arazoak ahazteagatik…

Ikusita, beraz, gazte batzuek kontsumitzen dutela, zer egin dezakegu drogen kontsumoaren eragin negatiboak gutxitzeko edo desagerrarazteko?

Familia barruan seme-alabak drogen aurrean indartsu eginen dituzten babes faktoreak landu ahal ditugu.

Beren garapen momentuan, haur eta nerabeek osasun eta ongizate iturri diren aukeraz eta esperientziez betetako bidea egiten dute, baina beren garapena arriskuan jar dezaketen zenbait oztopo aurkitu ditzakete, drogak adibidez. Bidaia horretan, nerabe batzuek ibilgailu potenteak gidatzen dituzte, pneumatiko on eta airbag-arekin. Beste batzuek, ordea, ibilgailu zahar eta hondatzen errazak direnak erabiltzen dituzte.

Gure seme-alabengan, babes faktoreak ibilgailu horretako segurtasun elementuak bezalakoak dira. Horiekin gainditu beharreko arriskuak behar bezala kudeatzeko aukera handiagoak izango dituzte.

Frogatu denez, babes faktore asko dituzten nerabeak drogek ez dituzte horrenbeste erakartzen eta, nahiz eta drogak probatu, haiekin arazoak izateko aukera gutxiago izaten dituzte.

Babes faktore nagusiak honako hauek dira:

- Familia giro ona.
- Autoestimua eta norbere buruarekiko konfiantza izatea.
- Aisialdi aukerak.
- Gizarte gaitasunak.
- Gustura egotea eskolan edo institutuan.
- …

Familiak hezteko estilo indargarri eta positiboa gomendatzen da drogetatik babesteko elementu garrantzitsua dela frogatu baita. Adibidez:

- Seme-alabei denbora eskaini.
- Egiten dutenarekiko interesa agertzea eta beren ingurunean parte hartu.
- Baldintzarik gabeko maitasuna eta babesa eman, baina garbi utziz denak ez duela balio.
- Arau eta muga egokiak ezarri.
- Seme-alabekin eraginkortasunez komunikatu.
- Seme-alabekin drogei buruz hitz egin.

Prebentzio programak

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

sakanerria >>

SAKANA

Zergatik .EUS?

Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, abenduaren 3tik aurrera, www.guaixe.eus izanen da gure webgunearen helbide berria

(1. orritik dator)

.EUS domeinuaren aldeko mugimendua 2007an hasi zen. Garagarrilaren 28az geroztik 92 aitzindari dira .EUS "abizena" dutenak Interneten. Haiek dira oraingoz munduari adierazten diotenak badela komunitate bat euskarazaridena eta euskal kultura jorratzen duena. Asteazkenetik nahi duen guztiak izanen du .EUS domeinua eskatzeko aukera, beti ere, PuntuEus fundazioaren irizpideak betetzen badira. Guztia behar bezala bideratzeko fundazioak protokolo zehatza du.

.EUS fundazioko kideak aurkezpen ekitaldian. ARTXIBOA

Sei pauso

1. www.domeinuak.eus-en sartu.
2. Erabili nahi dugun domeinua eskuragarri dagoen egiaztatu.
3. Erabilgarri badago, web orrian dauden erregistradore zerrendan bat aukeratu eta bere web orrira jo.
4. Erregistradore web orrian eskatutako datuak bete.
5. Erregistradorea fundazioarekin harremanetan jarriko da, domeinuak fundazioaren irizpideak betetzen dituen aztertzeko.
6. Irizpideak betez gero, fundazioak erregistradoreari web orria aktibatzeko eskatuko dio. Ordu batzuen ondoren ikusgai izanen da web orria.

508 ikaslek astean hirutan fruta gosaldu dute

Sakanako ikastetxe publikoetako 3 eta 6 urte bitarteko 508 ikaslek astean hirutan fruta gosaltzen dute. Lastailaren 20an hasi eta bihar bukatuko da, sei astez. Kanpaina horren bidez elikadura ohitura osasuntsuak sustatu nahi dituzte. Hala, gizentasunari aurre egin, zenbait gaixotasunen prebentzioan lan egin eta haurrek frutarekiko estimua handitzea lortu nahi dute. Ikasleek fruta hauek dastatzeko aukera izan dute: meloia; konferentzia eta blanquilla udareak; gala, golden eta fuji sagarrak; platanoa; mandarina; laranja eta azenario snaka.

Ikasleek fruten eta berduren onuren berri ematen dituzten kartelak ere ikusi dituzte euren ikastetxeetan. Nafarroako Gobernuak eta Europako Batasunak sustatutako kanpaina da. La Caixa fundazioak ekimenarekin bat egin eta etxean kontsumitzeko fruta jaso dute ikasleek ere.

Ikasleak ikastetxeka

Herria	Ikastetxea	Ikasle kopurua
Irurtzun	Atakondoa ikastetxe publikoa	145
Uharte Arakil	Aralarko Mikel donea ikastetxe publikoa	25
Lakuntza	Luis Fuentes ikastetxe publikoa	33
Arbizu	Arbizuko herri eskola	21
Etxarri Aranatz	San Donato ikastetxe publikoa	80
Iturmendi	Arrano Beltza ikastetxe publikoa	12
Altsasu	Zelandi ikastetxe publikoa	137
Olatzagutia	Domingo Bados ikastetxe publikoa	55
Guztira		**508**

Sakatxartela, erosketa sarirako bide

Bierrik Fundazioaren Beleixeguaixe Txartelarekin azaroaren 28tik 30era erosketak egiten dituztenak bi sari ederren zozketan sartuko dira

Bierrik fundazioaren babesle diren 1.550 pertsonek Beleixeguaixe txartel bana dute. Haren bidez Sakanako 80 establezimenduetan baino gehiagotan deskontuak eta abantailak dituzte urte guztian. Asteburu honetan, gainera, Beleixeguaixe txartela erabiliz erosketa egiten badute pare bat sari ederren zozketan sartuko dira. Aurtengo bosgarren eta azken Sakatxartela esperientzia izanen da asteburukoa.

Bierrik fundazioko 1.550 babesleei euren fideltasuna eskertzeko modua dira urte guztiko Beleixeguaixe txartelaren deskontu eta abantailak. Aldi berean, txartelak Sakanako denda eta establezimenduetan erosteari ere bultzada eman nahi zaio. Beraz, krisi garaian batzuendako eta besteendako onura du Beleixeguaixe txartelak. Eta Sakatxartel asteburu honetan gehiago.

Beleixeguaixe txartela lortzeko

948 564 275 eta 948 562 107 hots egin edo www.guaixe.net atarian sartu eta Bierrik Fundazioko babesle egin. Urteko 50 euro ordaindu behar dira. Horrek ibarreko 80 establezimendu baino gehiagotan urte guztian deskontu eta abantailak eskaintzeko aukera ematen du. Gainera, txartelagatik pagatutakoaren %25 errenta aitorpenean desgrabatuko du.

Sariak

1. Artazako kanpinean bi lagunendako gau bateko egonaldia etxola batean eta bi saio Finlandia gunean.
2. Iortia kultur guneko zinemarako hilabeteko bi txartel eta Beleixeguaixe txartel bat.

Arbizu

Odol-emaileen festa eguna

Larraitz Amadoz Lazkano

Urrezko eta zilarrezko dominak banatu zituzten Arbizun igandean. Miguel Angel Reparaz, Arbizuko odol-emaileen presidente ohiak adierazi zuen, "Arbizu bezalako herri batentzat sei domina banatzea asko da". Horrelako ospakizunak ez dituzte urtero egiten, baina aurtengoa berezia izan da sari banaketa egin behar zutelako. Odol-emaileen festa mezarekin hasi zuten, horren ondoren dominak banatu zituzten eta bukatzeko janaurreko batekin gozatzeko aukera izan zuten.

Aurten gainera, lekukotza aldaketa izan dute Arbizuko emaileen ordezkaritzan. Miguel Angel Reparaz hogeita hamahiru urtez izan da Arbizuko ordezkaritzako presidentea eta gazteen presentzia sustatu eta bultzatu egin nahi du. "Ehun eta hogeita bi odol emaile daude Arbizun baina batzuk jubilatuak dira eta adin batetik gorakoek ezin dute odolik eman, horregatik, gazteen presentzia nabarmendu nahi dugu" adierazi zuen Reparazek. Horregatik, egun hau aukeratu zuten presidente aldaketa egiteko, egungo ordezkari berria Ines Jaka izanen da.

Dominak

Guztira sei domina banatu zituzten, hiru urrezko eta hiru zilarrezko. Berrogeita hamar aldiz baino gehiago odola eman zutenak, urrezko dominadunak alegia, Juan Bautista Flores Araña, Miguel Mendinueta Balda eta Jose Ignacio Reparaz Berastegi izan ziren. Zilarrezko dominadunak, berriz, hogeita bost aldiz baino gehiago eman dutenak, hauexek izan ziren: Marta Lourdes Chueca Lazkoz, Antxon Razkin Ihabar eta Rosa Carmen Unzilla Araña.

Datuak

Arbizuk 122 odol-emaile ditu gaur egun, baina osasun arrazoiengatik edo adinagatik guztiek ezin dute odolik eman. Joan den urtean 32 arbizuarrek eman zuten odola, 49 emate. Aurten emaileak 29 izan dira eta 45 emate egin dituzte. Guztiak ere odol emate normalak, aurten egindako aferesis bat izan ezik. Emate gehienak Arbizun egin dira, odol-emaileen autobusean. Handik pasatu ziren pasa den urtean lau arbizuar, odol-emaile egiteko. Aurten, berriz, beste hiru izan dira. Bi urtetan, beraz, zazpi odol-emaile berri ditu Arbizuk. Gazteen presentzia oso garrantzitsua da 65 urtez gorakoek ezin dutelako odolik eman.

Lakuntza

Giro bikaina Lakuntzako Pertza Elkartearen 50. urteurrenean

Lakuntzako elkartea sortu zuten bazkideek omenaldi beroa jaso zuten

Badirudi betidanik egon dela, baina ez. 1964. urtean sortu zen Lakuntzako Pertza elkartea. 24 lakuntzarrek sortu zuten, sekulako ahalegina eginda. Aurten, bada, 50 urte bete ditu ia 500 bazkide dituen elkarteak eta aurtengo bazkide egunean modu berezian ospatu zuten urteurrena.

Ekitaldiak bazkide hildakoen omenezko mezarekin hasi ziren. Ondoren, eta trikitixak lagunduta, poteo bikaina egin zen herrian. Hirurak aldera bazkaltzera bildu ziren 200 pertsona inguru. 50. urteurrena ospatzeko bazkideek euren bikotekidea gonbidatu ahal zuten. Bazkaria bitartean 50 urte hauetako irudiak, bideoak eta argazkiak ikusi ahal izan ziren eta kafearekin batera omenaldien txanda iritsi zen. Jesus Andres Alegria presidenteak eta juntako gainontzeko kideek txapela eta oroigarria oparitu zieten elkartea sortu zuten hasierako bazkide haiei. Miren Ustarroz eskultoreak tripotak pertzan irikiten daudenean hartzen duten itxura oinarritzat hartuta sortutako eskultura polita jaso zuten opari hasierako bazkideek.

Ondoren, elkarteko bazkide musikariek bat egin eta orkestra berezia sortu zuten Ricardo Areta aita-semeek, Edor Zubeldiak eta Ibai Ernaizek, Ernesto Ernaiz, Olatz Andueza eta beste hainbaten kolaborazioarekin. Jakina, bildutako guztiak jarri zituzten dantzan. Tarte batean Gregorio Zubeldia bazkide sortzaileak mikrofonoa hartu zuen, elkartea nola sortu zuten aipatzeko. Iruñetik Gasteiza artean beste elkarterik ez eta Gipuzkoara joan behar izan zuten informazioa jasotzera, baina hasieratik argi zutela Gipuzkoan ez bezala, Lakuntzan emakumeak onartuko zituztela. "Eta begira orain, ze elkartea, ze giroa, ze hermosura" zioen Gregoriok.

Jai giroak herriko tabernetan jarraitu zuen eta frontoia ere bete zen, elkartearen egunaren harira antolatutako Nafarroako Sokatira Txapelketa jarraitzeko. Beraz, modu bikainean ospatu dute lakuntzarrek elkartearen 50. urteurrena. Beste horrenbeste ospa daitezela.

Zubeldia, elkartea nola sortu zuten azaltzen. Argazki gehiago: www.guaixe.net.

SAKANA

Errigorako saskiak banatzeko prest

Errigoraren auzolanerako deiari erantzunez Euskal Herriko makina bat tokitatik jendea Ablitasera joan zen larunbatean. Baita sakandarrak ere. 120 pertsonatik gora *Erriberako uzta, euskarari puzka* kanpainan eskatu ziren 12.000 saskiak prestatu zituzten, 9:00etatik 17:00etara. Ondoren, guztiak Tuterako Beterri elkartean afaldu eta igandean Cascanteko olio-errota bisitatu zuten.

Lizarraga

San Klementen elur falta baina giro aparta

Larraitz Amadoz Lazkano

San Klemente papa, elurra tipi-tapa esaerak aurtengoan ez du arrazoirik izan. Hori bai, jai giro aparta eta jendetsua izan zuten asteburu osoan lizarragatarrek. Urtero bezala, oroigarri bana eman zizkieten herriko gizon eta emakume zaharrenei. Ohitura duela 40 urte inguru hasi zen jubilatuen eguna ospatzen zutenean. Egun hartan, herriko gizon eta emakume zaharrenei banatu zieten oroigarria eta aurten Joxe Senar eta Pilar Garcia omendu dituzte. Omendutako protagonisten alaitasuna agerian geratu zen, baita *Isil-isilik dago* baltsa dantzatzen zabaldu zuten bizitasuna.

Pilar Garcia eta Joxe Senar omendu zituzten igandean.

Etxarri Aranatz

Pentsio funtsak Sasoiaren begi puntuan

Astelehenean, 11:00etan, Etxarri Aranazko plazan kontzentrazioa. Ondoren, Edmundo Fayanasen hitzaldia

Sasoiak, Nafarroako jubilatuen elkarteak, pentsio funtsak salatzeko kontzentrazioa deitu du astelehenerako. Irurtzungo azokan egin bezala, Etxarri Aranazkoan ere pentsio funtsak krisian ez daudela salatuko dute. Elkarretaratzea despeditu ondoren, 11:30ean, Edmundo Fayanase pentsio funtsak zer eta nola kudeatzen diren azalduko du kultur etxean.

Arbizu

Herriko ikastolak 40 urte bete ditu

Bihar, larunbata, 12:00etatik aurrera ekitaldia izanen da plazan

Arbizuko Andra Mari Ikastolak 40 urte bete ditu aurten. Urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu dute. Ekitaldi hori baliatuko dute orain arte egindako ibilbideari eta lagundu duten guztiei aitortza egin eta esker ona adierazteko. Ospakizuna 11:30ean trikitilari doinuekin abiatuko da. Ekitaldia, berez, eguerdian hasiko da. Bertsoak, ekitaldirako propio prestatutako bideo-emanaldia, argazki erakusketa, talde-argazkia, aatea eta beste izanen dira.

SAKANA

Premia dutenendako jakiak biltzeko egunak: gaur eta bihar

Nafarroako Elikagai Bankuak urteko bigarren jaki bilketa handia iragarri du gaurko eta etziko. *Imajina dezakezun baino gose gehiago dago* leloa du asteburuko jaki bilketak. Eta horregatik, harekin bukatzeko laguntza eskatu du Nafarroako Elikagaien Bankuak. Sakanan ere denda eta supermerkatuetan jakiak bilduko dituzten boluntarioak izanen dira. Eta, bestela, jakiak uzteko puntuak prest izanen dira. Astelehenaz geroztik Farmaplus kateko botiketan ere jaso dituzte jakiak.

Nafarroako Elikagai Bankutik nabarmendu dutenez, bilketa "premiagatik" egiten da. Urtetik urtera jasotako jaki kopuruak gora egiten badu ere, elikagaien beharra duten pertsonen kopuruak ere gora egin du. Jaki bilketako antolatzaileek elkartasuna nabarmendu dute: "lehenik boluntario gisa parte hartzen dutenena, baina baita jakiak ematen duten pertsona eta enpresena ere".

Bankuak elikagaiekin batera, batzuetan garbiketa produktuak ere banatzen ditu

Non jaso

Irurtzunen: Coviranen eta Eroskin; **Uharte Arakilen:** udaletxearen beheko aldean; **Arbizun:** Aliproxen, Inaxiren dendan eta elizan (gaur goiz eta arratsaldez; bihar goizez bakarrik); **Etxarri Aranatzen:** medikuaren etxe zaharrean (gaur goiz eta arratsaldez; bihar goizez bakarrik) eta **Altsasun:** BM, Dia, Eroski center eta Eroski city.

» Altsasu

Ilbeltzean etxegabeen aterpeak araudia mustuko du

Zerbitzuaren kudeaketa emateko deialdia egin du udalak eta abenduan hobekuntza lanak eginen ditu

Nafarroako parlamentariak 2008an aterpea ezagutzera hurbildu ziren. ARTXIBOA

Altsasuko Udalak etxegabeen aterpeko zerbitzua emateko deialdia egin du eta interesatuek euren eskaerak abenduaren 9ra arte aurkeztu dituzte. Zerbitzuaren truke udalak 28.556,08 euro emanen ditu. Aurreko deialdietan baino aurrekontu handiagoa da, hartzaileak afari eta gosarietarako jakiak erosi beharko dituelako. Kontratuak urte bateko iraupena izanen du, laura arte luzatu daitekeena; beti ere, kaputxinoek lokala uzten segitzen duten bitartean.

Bestalde, Altsasuko Udaleko Ongizate Batzordeak zerbitzurako araudia prestatu du, hilaren 19ko udal bilkuran onartu zena. Orain arte ez zegoen halakorik. Zerbitzuan aldaketak izanen direla, eta hura kudeatzeko deialdia egina dagoela baliatu du udalak ilbeltzean araudia indarrean jartzeko. Araudiak lau kapitulu eta 18 artikulu ditu. Haien bidez zerbitzuaren helburua eta izaera arautzen da. Araudian zehaztuak gelditu dira erabiltzaileek izan beharreko ezaugarriak, eskaintzen den zerbitzua eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Batzordeko buru Unai Hualdek esan digunez, "gizarte zerbitzuetako teknikarien laguntzaz zerbitzuak ahalik eta gehien definitzen saiatu gara. Helburua gutxieneko zerbitzuak zehaztuak gelditzea izan da". Aldi berean, Hualdek nabarmendu du orain arte ez zegoen jarraipen batzordea sortu dela: "udaleko batzordeko kideez aparte, gizarte zerbitzuen mankomunitateko teknikariak osatuko dugu". Azken horren parte hartzearen garrantzia azpimarratu du zinegotziak.

Hiru zerbitzu

Lehena, informazioa eta harrera da. Zerbitzu horren egitekoen artean daude: erabiltzaileez arduratzea, informatzea eta identifikatzea; garraio- eta asistentzia-zerbitzuen berrieman; sarrera-irteera kontrolatzea eta araudia betetzen dela zaindu; beharrezkoa izanez gero Udaltzaingoarekin eta Foruzaingoarekin harremana mantendu; etxegabeen erregistroa kudeatu; urteko memoria osatu eta udalak eskatutako agiriak egin.

Bigarren zerbitzua ostatu ematea eta mantenua da, egin behar zehatzekin: erabiltzaileak gelan kokatu; etxegabeendako afariak eta gosariak prestatzea eta aterpeko jangelan zerbitzatzea eta otorduetarako beharrezko garbiketa eta prestaketak izanen dira. Afariak, normalean, 21:30ean emanen dira. Beranduago sartzen direnendako, 23:30ean. Gosariak, berriz, 7:30etik aurrera emanen dira. Otorduetako menuak ere zehaztu ditu udalak eta edozein aldaketa Udalaren Ongizate Batzordearen oniritzia beharko du.

Azkenik, higiene zerbitzua dago, honako zereginekin: egunero aterpeko altzariak, komunak, dutxak garbitzea, erratza eta zorugarbitzailea pasatzea eta hondakinak ateratzea; oheak egin, maindireak eta toailak egunero garbitu eta beharrezko mantak eta izarak berritu; gargarriak erosi; argi, ur eta bestelako zerbitzuen giltzen kontrola eta aterpean tenperatura egokia mantentzea.

Hiru hilean behin egin dezakete lo etxegabeek Altsasuko aterpean. Arduradunak hala eskatuta salbuespenak onartu ditzake udalak. Aterpea ilbeltzaren 1, 5 eta 6an, garilean, festetan eta abenduaren 24, 25 eta 31n itxita egonen da.

Hobekuntza lanak

Udan komunak berriztatu dira, sarrerako kartelak ere eta aterpe guztia margotu da. La Caixaren gizarte ekintzaren bidez egin da hori. Baina gehiagoren premia sumatu dute udalean. Izan ere, kaputxinoen komentuko sukaldean prestatzen dira gaur egun etxegabeen aterpean ematen diren afariak eta gosariak. Baina komentuan dauden bi fraideak adinekoak dira eta beste norabait lekualdatzen badituzte sukaldea erabiltzeko aukerarik gabe gelditu aurretik udalak esku hartzea erabaki du.

Horregatik, afariak eta gosariak prestatzeko bitrozeramika plakak, ke kanpaia, hozkailua eta sukaldeko altzariak eta horiek abenduan jarriko ditu udalak eta 1.827,02 euroko inbertsioa eskatuko dio. Irabazi asmorik gabeko erakundeei eman beharreko diru poltsa bestelako beharretara bideratzea erabaki zuen Altsasuko Udalak eta hau da horietako bat. Bestalde, aterpetxean udalak dituen ondasunen inbentarioa egin da. "Haiek zaindu eta aseguratu beharko dituzte" esan digu zinegotziak.

»

Frontoiko tabernaren kudeaketarako proposamenak aurkeztu daitezke

Atabo-Altsasutik jakinarazi dutenez, frontoiko tabernaren kudeaketa eta Burunda frontoiaren mantenua emateko deialdia egin berri du. Kontratua urte batekoa izanen da, hirura luzatu daitekeena. Interesatuek 18 egun dituzte euren proposamenak aurkezteko. Puntuazio handiena lortzen duen eskaintzari emanen zaio kudeaketa.

» Etxarri Aranatz

Dibortzio baten kantakizuna

Espainia laztana, gurea bukatu da kantuaren bertsioarekin bideoklipa egin dute etxarriarrek auzolanean

Kataluniako Mali Vanili taldearen *Espanya cariño, lo nostre no funciona* moldatu eta *España laztana, gurea bukatu da* kantua egokitu dute etxarriarrek. Bikote baten banaketa balitz bezala jokatzen dute aktoreek, baina kantuaren letrak Espainiaz dibortziatzera doanaren kontakizuna azaltzen du.

Ainhoa Juanizek eta Txetxu Colladok jokatzen dituzte protagonisten paperak. Moldaketa abesten dutenak, berriz, Hesian taldeko Zuriñe eta Fran dira. Kantuaren sortzaile kataluniarrak ere bideoan ageri dira. Etxarri Aranatzen, Lakuntzan, Aralarren, Leitzan, Zumaian, Astigarragan eta Getarian hartu zituzten irudiak. Bideoklipak neurri batean 8 apellidos vascos filma gogorarazten du.

Hirugarrena

Kritika eta aldarrikapena uztartzen duen hirugarren lana da hori. Etxarriarrek auzolanean aurretik *Gora herri askeak* (2011-05-07) eta *Etxarri mugi* (2013-07-03) bideoklipak egin dituzte. Jon Palomo filmak-etik adierazi dutenez, lan horien helburua da Etxarriko herri dinamika suspertzea, etxarriarrak auzolanaren garrantziaz jabearaztea eta autogestioaren balioa aldarrikatzea. Beti ere, giro onean eta umoretsuan adin ezberdinetako herritarren arteko harremanak sustatuz.

Bideoa ikusteko

www.youtube.com/watch?v=qsy0AlkkcH8

Bideokliparen iragarkia.

» Arbizu

Gazte Egunaren bezpera

Gazteak gurdi gaineko rock emanaldiarekin gozatzen. ARTXIBOA

Egitaraua

>> Azaroak 28, ostirala
19:00etan Burrunbada.
22:00etan AGA memoriak.

>> Azaroak 29, larunbata
12:00etan Txupinazua eta auzatea.
13:00etan Triki bertso poteua.
14:30ean Bazkaia.
17:00etan Gazte asanbladen arteko txapelketa.
18:00etan Elektrotxaranga.
20:00etan 28ak libre, kontzentrazioa.
21:00etan Boikatada.
23:00etan Kontzertuak: Karroña eta Zartako-k.

Biharko Arbizuko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi biltzen dituen egitaraua prestatu du. Gazteek eguerditik aurrera izanen dute zeregina. Biharko egitarau betearen sarrera gisa, gaur Arbizuko Gazte Asanbladaren ibilbidearen errepasoa eginen dute. Seigarren aldia da gazte asanbladak Gazte Eguna udazkenean ospatzen duela, lehen maiatzean egiten baitzen.

» Etxarri Aranatz

Atzoko eta gaurko EHEkideak

Horiexek elkartuko dira bihar, 18:30etik aurrera, Etxarri Aranazko kultur etxean. Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) 35 urte bete ditu eta "aurrera egiteko atzera begiratzea" erabaki dute. Horregatik, egungo kideek batzarrera gonbidatu dituzte aurretik EHEn arituta-koak. Batzarrean egindakoaz eta egiteko gelditzen denaz eta hori nola egin den aztertuko dute. Azken batean, EHEko kideek aurretik aritutakoen esperientziak partekatu eta haien ekarpenak eta iritziak jaso nahi dituzte. Batzarraren ondoren afaltzera elkartuko dira guztiak.

Etxarri Aranatzen 90eko hamarkadan izan zen EHEko taldea. Hari lekukoa Ziriketzen euskara taldeak hartu zion. Azken hori desagertzean euskaltzaleen belaunaldi berri batek EHEren talde berria sortu zuen aurreko hamarkadan, ora indik martxan dena.

» Altsasu

Euskaraz, eroso

Parean dugun pertsona euskalduna ote den ez dakigunean, euskaraz egin eta beste hizkuntza batean erantzuten digutenean… Egoera deserosoak dira euskaldun askorendako eta hizkuntza-estresa sortzen die. Deserosotasun hori arintzeko eta desagerrarazteko baliabideak jaso zituzten asteburuan 17 sakandarrek. TELP tailerra (Taller d'Espai Lingüístic Personal) Gemma Sanginesek eman zuen euskaraz; Sangines tailerra sortu duen piskologoetako bat da.

Sanginesen inguruan elkartu ziren tailerrean parte hartu zutenak.

SAKANA

Hego Euskal Herriko tren loturaren "garrantzia"

Horixe aipatu dute EAE eta NAfarroako gobernuek eta Sustapen Ministerioari eskatu diote heldu den urterako bi erkidegoen arteko lotunea nola gauzatu behar den zehazteko

Nafarroako Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako kontseilari Ana Oregi ostiralean elkartu ziren. Biek ere bi komunitateak Prestazio Handiko Trenaren bidez (PHT) lotzeko garrantzia azpimarratu zuten, nabarmenduz "Ebro funtsezko ardatz estrategikoa" dela, "Europarako bi korridore lotzen dituelako: Kantabriko-Mediterraneoa eta Atlantikoa". Nafarroa eta Euskal Autonomia Elkartea tren azkarraren bidez lotzeko aukera guztietan Sakana ageri da.

» Altsasu

Gettin Robotikak inbertitzaileei bere proiektua aurkeztu zien

Altsasuko enpresak ostegunean Neotec Innvierte foroaren 13. edizioan parte hartu zuen. Estatu osoan egindako hautaketa baten ondoren, 16 enpresek euren proiektuak aurkeztu zituzten. Guztiak ere oinarri teknologiko berritzailea duten enpresak dira, hasierako garapen-faseetan eta hazten ari direnak, eta kapitala behar dutenak beren prototipoaren garapena amaitzeko, beren produktua hobetzeko edota merkatuan sartzeko, edo beren enpresa-ikuspegiari buelta bat emateko.

Konpainia horien kapitalizazioa lortzeko aipatu foroak arrisku-kapitaleko enpresak, berrikuntzari lotutako inbertitzaileak eta ordezkari instituzionalak elkartzen ditu. Enpresetako ordezkariek haiei eman zieten euren asmoen berri. Gettin Robotika enpresa altsasuarrak forjaketa eta galdategiaren sektorean robotizatutako zelulak garatzeaz eta ezartzeaz arduratzen dela azaldu zien bildutakoei eta garatu dituen makinen berri eman ere.

»

Geroa Baiko buruak Altsasun

Gaur, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Uxue Barkos, koalizioaren Nafarroako Gobernuko presidentziarako hautagaia, eta Manu Aierdi, Geroa Baiko parlamentarioa, gaur Altsasun izanen dira. Hitzaldi-eztabaida ekitaldi irekia da gaurkoa. Geroa Baiko buruek sakandarren iritziak, kexak, kezkak eta iradokizunak jaso nahi dituzte. Aldi berean, eurek erakundeetan egiten ari diren lanaren berri emanen dute. Legegintzaldi akaberan Geroa Baiko kideek balantzea egin eta aurrera begirako ikuspegia partekatu nahi dute elkartzen diren sakandarrekin.

» Etxarri Aranatz

Parisen auzipetuei elkartasuna azaltzen

Azaroa hasieratik ETAko logistika aparatuko kide izatea egozten dieten zazpi euskal preso epaitzen ari dira. Horien artean dago Oihan Barandalla. 2005 eta 2006. urteen artean armak eta lehergaiak lapurtzea eta bahiketa egozten diete. Auzipetuen 45 senide eta lagunek, tartean sakandarrak, igande gauean autobusa hartu eta Parisera joan ziren, "euskal herritarrei elkartasuna eta maitasuna adierazteko". Astelehenean, epaiketaren ondoren tarte batez auzipetuak besarkatzeko aukera izan zuten. *Epaitegitik kanpo amnistia* aldarrikatzen kontzentrazioa egin zuten.

» Altsasu

Euskararen eguna Altsasun ospatuko du Iñigo Aritzak

Burundako ikastolak asteazkenean Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitaraua prestatu du. Eguerdian Lehen Hezkuntzako ikasleak Foru plazan herri jolasetan parte hartuko dute. Egitaraua osatzeko Alex Txikon mendizalearen hitzaldia iragarri dute. 18:00etan izanen da Txioka haur ikastolan.

Altsasu

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako autodefentsa sarea ehuntzen

Laurogei bat pertsona elkartu ziren atzo Altsasuko Foru plazan mugimendu feministak deituta. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko autodefentsa sarea aldarrikatu zuten. Borobilean bilduta, haria elkarri pasatuz autodefentsa sarea jostea irudikatu zuten. Bilkuraren ondoren, Gure Etxea eraikinean film laburren emanaldia izan zen eta, despeditzeko, auzatea.

Altsasun egindako elkarretaratzea. Etxarrin 40 bat elkartu ziren. UTZITAKOA

Aurten eraildako 45 emakumeen izenak zerrendatu zituzten eta haiekin ikasleek ilara sortu zuten.

Ikasleak emakumeenganako indarkeriaren kontra

Altsasuko lau ikastetxeetako ikasleek adierazpena irakurri eta aurten eraildako 45 emakumeak izan dituzte gogoan

Altsasuko Udalak bilkuran aho batez onartutako adierazpenari ahotsa jarri zioten asteartean ikasleek. Aralarko Mikel Donea institutua, Sakana Lanbide Heziketa institutua, Sagrado Corazon ikastetxeko eta Iñigo Aritza ikastolako 280 ikasle izan ziren adierazpenaren irakurketan parte hartu zutenak. Hura irakurri ondoren, aurten estatuan eraildako 45 emakumeen izenak aipatu zituzten. Haien izenak Iortia kultur guneko kristaldegian gelditu ziren. Ikasleak, berriz, barrura sartu ziren emakumeenganako indarkeria salatzeko film laburren emanaldi batean parte hartzera.

Tren geltokiaren 150. urteurreneko erakusketa

Abenduaren 2tik 21era astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Agorrilaren 15ean mustu zen Altsasuko tren geltokia eta horrekin batera zabalik gelditu zen Madril eta Irun arteko trenbidea. Urteurrena dela eta hamar trenzale altsasuarrek erakusketa prestatu dute Iortian. Trenak ibili ahal izateko ogibide ugarien lan tresnak eta jantziak ikusgai jarriko dituzte. Haiekin batera trenak martxan izanen dituen maketa bat ere izanen da ikusgai. Argazki zaharrekin batera Jesus Ignacio Miguel Amoztegiren koadroak ere ikusgai izanen dira. Baita trenarekin erlazioa izan duten emakumeen testigantzak ere. Asteartean 18:00etan zabalduko da erakusketa eta jubilatu elkarteko abesbatza ariko da kantuan.

Kronologia laburra

XIX. mendea Aurreneko trenbideak jarri ziren Europan.
1855 Espainiako Gobernuak Trenbideen Lege Orokorra onartu zuen. Madril-Irun trenbidearen ibilbidea zehaztu zen.
1858 Compañia de los caminos de hierro del norte enpresa sortu zen.
1863 Altsasuko tren geltokiaren eraikuntza bukatu zen.
1864-08-15 Altsasuko tren geltokia mustu zen.
1841 Gerraren ondoren tren konpainiak ondoa jota zeuden eta estatuak RENFE sortu zuen.
1955-1995 Enpresa ugarik euren ekoizpenak bidaltzeko erabili zuten trena. Bidaiari askoren abiapuntua ere izan zen.

Etxarri / Altsasu

Emakume abertzaleen topaketaren aurkezpen bikoitza

Asteartean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean eta ostiralean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean

Euskal Herriko Bilgune Feministak VI. Emakume Abertzaleen Topaketa antolatu du abenduaren 13rako, Ondarroan. Jostorratzak dantzan ditugu, *Euskal Herriaren burujabetza feministarantz* leloa du topaketak. Bilgune Feministak 2002an sortu zenetik bere ildoa markatu duen plan estrategikoa egokitu eginen du. Oinarriak zehazteko eztabaida gunea izanen da Ondarroako topaketa. Etxarri Aranazko eta Altsasuko Bilgune Feministako kideek euren herrietan topaketaren aurkezpen bana egin dute.

Informazio gehiago

2014topaketafeministak.net/

Altsasu

Ikurrina kentzearen kontrako protesta

Larunbatean, 19:00etan Altsasuko Foru plazatik manifestazioa

Gure ikurren alde. Inposiziorik ez! leloa buru duen manifestazioa eginen da bihar Altsasun. Epaiketa egin bitartean Nafarroako Auzitegi Gorenak Altsasuko Udalari ikurrina behin-behinean kentzeko eskatu dio. Erabaki horren kontra protesta egitera deitu dituzte altsasuarrak.

Geure Ikurren Alde ekimenak Zelai kalean Altsasuko eta Nafarroako banderak eta ikurrina jarri zituen masta banatan otsailaren 23an. Herritarrek jarritako banderak zirela nabarmendu zuten orduan. Banderak jarri eta berehala Jose Javier Esparza Abaurrea Toki Administrazio kontseilariak Altsasuko Udalari ikurrina kentzeko eskatu zion. Nafarroako Ikurren Legea urratzen zuela argudiatu zuen horretarako. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak erantzun zion: "udalak banderak jartzeko baimena eman zuen, baina ez da haien tutore".

Gobernuak auzitara jo zuen, kautela neurri bezala banderak kentzea eskatuz. Hasiera batean ez zuten neurri hori onartu, baina helegitearen ondoren etorri da hura behin-behinean kentzeko epaia.

Batzarra

Ostiraleko Burunda pilotalekuan egindako batzarrean 200dik gora altsasuar elkartu ziren. Han Altsasun ikurrinaren aldeko dinamika bat martxan jartzea erabaki zen. Etxeetan ikurrinak zintzilikatzeko gonbitea luzatu dute eta biharko manifestazioa ere deitu dute.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua
Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA
• Garapen pertsonala
• Komunikazio arazoak
• Orientazioa eta aholkularitza...
Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

NEREA
ILEAPAINDEGIA
NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 · Altsasu

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Borja Ondarra Ondarra

VII. urteurrena

Neguko goiz batean
ihintzak hormatu zizun bizitza
gurean lausotu zitzaigun eguna.
Aitzitik, zu horren gertu egia
gaude, zu itzuli bitartian.

Etxekoak

Oroigarriak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Elai Alai dantza taldean irakasle baten beharrean gaude hilabete batean zehar edo. Interesatuak elaialaikuntza@gmail.com helbidera idatzi edo Evarekin kontaktuan jar daitezela: 646 40 31 20.

Harakina behar da Goierrin. Esperientziaduna eta langile fina. Interesatuek hots egin dezatela 635 75 83 75 telefonora.

LAN ESKARIA

Zaintza eta etxeko lanak. Emakumea naiz eta etxeko lanak egiteko, haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko lana bilatzen ari naiz. Eskarmentu eta ezagutza handia ditut alzheimer duten pertsonen zaintzan.Orduka. Nire telefonoa 639 15 88 12.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Sakanan liburu-denda eskualdatzen da. Interesatuek hots egin dezatela 666 79 43 53 telefonora

Ikastaroak

Astrologia eta Reiki. Astrologia: ikastaroak, kontsultak, karta astrala. Reiki: ikastaroak, saioak. Hots egin 659 82 94 38.

AES. "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua;; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

V. Gaztezulo bideo lehiaketa. Bideoek "Hi eta hire munduak" gaia izanen dute oinarri. Gutxienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izan beharko dute. 16 urtetik gorako gazteek parte hartu dezakete. Lanak azaroaren 6a eta 16a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago: www.gaztezulo.com

Oharrak

Etxarriko irakurketa taldea. Abenduaren 20an, 19:00etan, Fermin Etxegoienen "Autokarabana" liburuaz hitz egitera elkartuko dira Etxarri Aranazko liburutegian.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

Elkartrukea. Ingeles mintza. Maita ertain edo goraxeagokoa baduzu eta langilea bazara –ez ikasleentzat- ingeles herdoildu hori taldean askatzeko. Aingeru 685 47 46 82.

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

JAIOTZAK

- **David Anrango Santillan,** azaroaren 5ean Etxarrenen.
- **Iradi Lanz Senar,** azaroaren 15ean Lakuntzan.
- **Aroa Reparaz Caballé,** azaroaren 16an Arbizun.
- **Itsaso Vicario Unamuno,** azaroaren 21ean Altsasun.
- **Unax Miranda Marin,** azaroaren 22an Uharte Arakilen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

MENDIA-ESPELEOLOGIA

URBASA-ENTZIARI BURUZKO LIBURUA: Lizarrako Talde Espeleologikoko Agustin Chascok, Jesus Fernandez de Muniainek eta Angel Luquinek Sintesis Espeleológica de Urbasa-Entzia aurkeztu dute, Urbasako barrenen berri ematen duena.

kirola >>

Pilota

11. IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO PILOTA TXAPELKETA

Goazen hirugarren jardunaldiarekin

Bihar XI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako 3. jardunaldia jokatuko da 16:30ean, ikastolako frontoian.

3. jardunaldia

Larunbatean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako pilotalekuan

LH4: Aimar Bengoetxea – Hegoi Lakuntza

LH5:
Iker Saturio – Amets Borreguero
Ane Ojer – Arkaitz Agirretxe
Lander Peral – Koldo Mentxaka
Irati Lumbreras – Araitz San Roman
Jon Navarro – Ekiñe Fernandez
Aritz Sevilla – Ander Goikoetxea
Markel Arakama – Asier Solis
Olatz Galarza – Amaiur Zubiria

LH6:
Ekhi Olabide - Jokin Senar
Oier Gastesi – Aitor Ovejero

DBH2:
Urko Gartzia – Beñat Aldasoro

DBH4:
Manex Goikoetxea - Gorka Ansa

Kiroldegia

Gaztetasunaren Balioaren Saria Mariñelarenarendako

Pilotu irurtzundarrak astelehenean jaso zuen saria Nafarroako Jauregian, Yolanda Barcina presidentearen eskutik

Nafarroako Gobernuak Gaztetasunaren Sariak eman zituen astelehenean, Nafarroako Jauregian ospatutako ekitaldian, Yolanda Barcina presidentea buru zela. Aurtengo sarietako bat Sakanara etorri da, Alex Mariñelarenak Gaztetasunaren Balioa saria jaso zuelako.

Ezbeharrak gainditzeko grinagatik, "eredu"

"Gaztetasunaren Balioa sariak elkartasun eta esfortzu ibilbidea adierazi nahi du. Epaimahaiak Alex Mariñelarenari errekonozimendua egin nahi dio sari honekin, pilotu gazte hau borrokaren eta ezbeharrak gainditzeko jarreraren eredua baita, gaztetasunaren adibidea. Istripu larria izan zuen Paul Ricard zirkuituan, eta ordutik Nafarroako gazteendako adibidea da, ezbeharrak gainditzeko grinagatik, amore ez emateagatik eta horrenbeste esfortzu egin ondoren lortutakoa berriro berreskuratzeko egiten duen borrokagatik. Alex, gazte guztiendako eta nafar guztiendako eredu zara. Zorionak ezbeharrak gainditzeko duzun grinagatik" adierazi zion Yolanda Barcinak Alex Mariñelarenari saria ematerakoan.

Eskertuta

Alex Mariñelarena oso eskertuta zegoen errekonozimenduarengatik. "Lehendabiziko hilabeteetan ez nintzen guztiz jabetzen bizi ari nintzen egoeraz, eta ez nion guztiz aurre egiten. Alta eman didatenetik, guztiz errekuperatzeko oraindik ere esfortzu gehiago egin behar dudala ikusi dut, interes gehiago jarri eta errealista izan behar dudala. Gauzei buelta gehiegi ematen diet, lo egitea kosta egiten zait eta horregatik nigan konfiantza dutela ikustea, hau da, lehen egiten nuena egiteko errekuperatu ahal naizela uste izateak asko pozten nau" adierazi zuen irurtzundarrak.
Egun oraindik ere istripuaz osatzen dabil irurtzundarra. Sorbaldako indarra errekuperatzea eta oreka guztiz errekuperatzea falta zaio, baina gogor entrenatzen ari da, heldu den urtean zirkuituetara bueltatzea baita bere asmoa, Espainiako Abiadura Txapelketan aritzea.

Pilota

Joanes Bakaikoak bere bigarren lau t´erdiko txapela jantzi nahi du

Abenduaren 3ko jubenilen Nafarroako lau t´erdiko finalean Unai Laso izango du aurkari

Asteazkenean Guillermo Mazo Memoriala-Nafarroako Jubenilen Lau T´erdiko Txapelketako final erdiak jokatu ziren Lekunberrin. Pronostikoak bete ziren: Huarte Iruñeko Lasok 18-10 irabazi zion Errekako Medinari eta Errekako Joanes Bakaikoa etxarriarrak 18-5 hartu zuen menpean San Migeleko Bingen Anduaga.

Nafarroako Jubenilen Lau T´erdiko finala abenduaren 3an jokatuko da, Nafarroaren Egunean, asteazken goizean, Iruñeko Labriten. 2013ko finalean Joanes Bakaikoak jantzi zuen txapela, Bortzirietako Jon Olaizolari partida gogorrean 18-5 irabazi eta gero. Ea aurten ere txapela Etxarrira datorren!

Pala

IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketako 2. Jardunaldia jokoan

Guztira 26 bikotek eman dute izena IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketan. Aurreko asteburuan hasi zen txapelketa, helduen lehen mailan izan ezik. Beraiek asteburu honetan ekingo diote lehiari. Abenduan jokatuko dira finalaurrekoak eta finalak.

Partidak Etxarri Aranazko eta Altsasuko pilotalekuetan jokatuko dira, ostiraletan (19:00etatik aurrera), larunbatetan (15:30etik aurrera) eta igandetan (10:30etik aurrera).

2.jardunaldia

Benjaminak:
Miren-Maialen / Maria-Ane
Maria-Ane / Julene-Olaia
Kimuak:
Elorri-Ane / Maddi-Irantzu
Naroa-Izaro / Maddi-Irantzu
Haurrak:
Maitane-Dinora / Elai-Luzia
June-Naroa / Uxue-Ainhoa
Kadeteak:
Irati-Aroa / Oihane-Naroa
Oihane-Naroa / Eider-Ikerne
Helduen 2. Maila:
Irati-Leire / Ariane-Andrea
Lopez de Luzuriaga-Suarez / Uxue-uxue
Garazi-Irati /Andrea-Izar
Ane-Miriam / Ane-Igone
Helduen 1. maila
Yanira-Rebeka / Amaia-Nagore
Maite-Saioa / Ainhoa-Maddi

Atletismoa

Altsasuko Barricarte herri lasterketarako prest

Ohikoa denez, abenduaren 8an jokatuko da Zubeztia elkarteak prestatutako 34. Oinezko lasterketa edo 31. Alberto Barricarte memoriala

Altsasuko Zubeztia elkarteak Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako Herri Lasterketak 34. edizioa beteko du aurten, eta 31. urtea izango da aipatu lasterketak Alberto Barricarte memoriala izena hartu zuela. Proba herrikoi hau, ohi denez, abenduaren 8an jokatuko da, Ama Birjinaren egunean, astelehenarekin, 11:30ean. Korrikalariendako zita garrantzitsua da, San Silvestrearekin batera urteko azken hitzordua izaten baita. Aurreko urtean 219 korrikalarik hartu zuten parte proban eta antolakuntzak parte-hartze polita espero du.

2013an 219 korrikalarik hartu zuten parte.

12,4 km

Herrian barna antolatutako zirkuituari lau buelta eman beharko dizkiote korrikalariek, guztira 12,4 km. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkartearen albotik. Foruen Plazatik, eta Ferial eta Lapurbide kaleetatik barna Larrainbidera helduko dira korrikalariak, Zubeztia kalea pasatu eta gero Zelai kalea igotzeko. Zelai kaleko goialdean buelta hartu eta Isidoro Melerorantz joko dute lasterkariek, Araba eta Idartzagain kaleetatik Auzobidera heltzeko, eta handik Alzania kalea hartzeko. Alzania kaletik San Juanera iritsiko dira korrikalariak eta bertatik Zubeztia elkartera joko dute. Hura izango da helmuga.

Izena ematea egunean bertan

Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke edo egunean bertan, 10:00etatik aurrera, Gure Etxean. Bi kategoria izanen dira: 18 eta 39 urte arteko emakumeak eta gizonak, eta 40 urtetik goragoko emakumeak eta gizonak. Bukaeran Zubeztia elkarteak hartuko du sari ematea eta auzatea. Gainera, sariak zozketatuko dira.

Sakanako atletismo kopako **azken lasterketa**

Lasterketa honekin Sakanako X. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariari bukaera emango zaio. Momentuz gizonezkoetan Javier Moreno altsasuarra da lehena. Atzetik daude Francisco Javier Gomez eta Iban Gonzalez eta Sergio Garcia de Eulate, puntutan berdinduta. Emakumezkoetan Izaskun Beunza dago buruan, Maite Zabaletaren eta Haizea Ramirez de Aldaren aurretik.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

11. JARDUNALDIA

SAN JUAN 1 – LAGUN ARTEA 1
San Juanen kontra ongi jokatu zuen Lagun Arteak eta sekulako gogoak jarri zituen. Lehen zatian Lagun izan zen onena, baina 53. minutuan gola sartu zuen San Juanek eta horrela bukatu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	Cantolagua	**25 p**
13.	Lagun Artea	**9 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – BETI KOZKOR
(Igandean, 15:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

12. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 4 – UNIV. DE NAVARRA 1
ULTZAMA 1 – ALTSASU 2
Etxarri Aranatzek lider jarraitzen du, Universidad de Navarraren kontra 4-1eko sekulako garaipenaren ondoren. Mikelek, Aritzek, Pablok eta Asierrek sartu zituzten golak. Bestalde, Ultzamaren kontra jokatutako partida lehiatuan, Ismaelek eta Davidek sartu zituzten Altsasuko golak. Ultzamakoek eskua eta jokoz kanpoa egon zirela salatu zuten, arbitroaren erabakiekin kexu. Ultzama markagailuan hurbildu zen, baina 3 punturekin itzuli ziren altsasuarrak.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	**28 p**
8.	Altsasu	**18 p**

Asteburuko jardunaldia

MUTILBERA – ETXARRI ARANATZ
(Igandean, 16:30ean, Mutiloabeitin)
ALTSASU – MENDILLORRI
(Igandean, 16:00etan, Dantzalekun)

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

9. JARDUNALDIA

EGIARRETA 3 - UNZITI 5
APOLO 3 – ZALDUA 2
Egiarretak lidergoarengatik borrokatzeko aukera ederra galdu zuen, Unzitiren kontra galdu eta gero. Bigarrena jarraitzen du baina 5 puntura.

Sailkapena >>

1.	Bar Poukas	**25 p**
2.	Egiarreta	**20 p**
7.	Zaldua	**9 p**

Sokatira



Puntako tiratzaile nafarrak aritu ziren lanean larunbatean Lakuntzan.

Beti-Gazte eta Berriozar Nafarroako txapeldun

Nafarroako Goma Gaineko txapeldunak izan ziren gizonezkoen 8x8 600 kilotan eta mistoen 8x8 550 kilotan

Lakuntzako Behar-Zana pilotalekua bete egin zen larunbat arratsaldean, Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketako azken jardunaldia jokoan baitzegoen.

Gizonezkoetan 8 tiratzailez osatutako taldeak lehiatu ziren Nafarroako Goma Gaineko Gizonezkoen 600 kilotan. Beti-Gazte izan zen onena, eta txapela janztea lortu zuten lesakarrek (6 puntu). Amaiur izan zen txapeldunordea (6 puntu). Hirugarren postua erabakitzeko borroka bizia izan zuten Berriozarrek eta Txantreak. Berdinketa apurtzeko bi tiraldiak Berriozarrek irabazi zituen eta bera izan zen hirugarrena (3 puntu). Txantrea sailkatu zen azkena (3 puntu).

Talde mistoetan gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako taldeak lehiatu ziren. Berriozar izan zen txapelduna (6 puntu), Amaiur txapeldunordea (4 puntu) eta Txantrea hirugarrena (2 puntu).

Areto futbola

Imanol Arregi eta Javi Eseverri omenduak

Murtzian omendu zituen El Pozo Murciak. Ondorengo partidan, El Pozok 7-0 irabazi zion Magna Xotari

El Pozo Murciak 25 urte bete ditu eta ospakizun ekitaldien barruan, larunbatean Magnaren kontrako partida hasi baino lehen Murtziako taldeak Magnako Javi Eseverri kapitaina eta Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarra omendu zituen, "Javi Eseverri kategoriako jokalari beteranoena delako, eta Imanol Arregi, El Pozoko Duda entrenatzailearen antzera, talde berbera entrenatzen urte mordoxka daramalako".

Partidari dagokionez, hasieran Magnak El Pozoren erasoei aurre egin zien, baina 9. minutuan El Pozok gola sartzea lortu zuen, eta hortik aurrera taldea jaun eta jabe izan zen. Azkenean, 7-0 gailendu ziren murtziarrak, garaipen mingarria Magnarendako.

Gaur Marfil aurkari partida erabakigarrian

Sailkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (29 puntu). Magna Nafarroa Xota 9.a da, 16 punturekin. Espainiako Koparako txapelketan parte hartzeko lehen 8 postutan sailkatu beharra dauka Magnak; hortaz, guztiz erabakigarria da gaur 20:30ean Anaitasuna Pabilioian Marfil Santa Coloma taldearen kontra jokatuko duten partida. Ea puntuak etxean geratzen diren.

El Pozo Murciako Bolarin presidenteak eman zien oroigarria.

Dani Saldise eta Pablo Ibarra, 21 urtez azpiko selekziora

Magnako Dani Saldise eta Pablo Ibarra jokalariek Espainiako 21 urtez azpiko selekzioan aritzeko deia jaso dute. Espainiak Txekiako Errepublikaren kontra bi lagunarteko partida jokatuko ditu abenduaren 1ean eta 2an. Bestalde, Magnako Victor Arevalo jokalaria lesionatuta dago eta 3 aste emango ditu bajan.

Areto futbola

Bunkerrek hartu du burutza Futsalsakanan

Futsalsakana txapelketako 4. jardunaldiko emaitzak:

Iturmendi **3** – Arbizu harrobia **4**
Racin San Migel **6** – Arbizu K.T. **6**
Auzomotojorik **5** – Hijos de ruta **4**
Back Street Boys **1** – Bunker **7**

Asteburuan 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketako 4. jardunaldia jokatu zen. Arbizuk eta Racing San Migelek partida ikusgarrian seina berdindu eta gero, eta Bunkerrek Back Street Boysen kontra 1-7 irabazi ondoren, Bunker da lider berria. Sailkapenean Bunker da liderra (12 puntu), Arbizu bigarrena (12 p.) eta Racing San Migel hirugarrena (7 p.). Back Street Boysek eta Arbizu harrobiak seina puntu dituzte, Hijos de rutak eta Auzomotojorikek hiruna puntu eta Iturmendik oraindik ez du punturik bildu.

5. jardunaldia

Uharte Arakilgo frontoian
Ostiralean
20:00etan: Auzomotojorik – Back Street Boys
21:00etan: Hijos de ruta – Racing San Migel
Larunbatean
17:00etan: Arbizu – Iturmendi
18:00etan: Arbizu harrobia – Bunker

Saskibaloia

Igandean saskibaloia Irurtzunen

Sakanako II. Saskibaloi Topaketetako 3. jardunaldia jokoan, 11:00etatik aurrera

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako II. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu. Bertan premini mailako taldeak ariko dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak, Altsasuko Saskibaloi Taldekoak, Irurtzungo Saskibaloi Taldekoak eta Andra Mari ikastolako Saskibaloi Taldekoak.
Azarotik ilbeltzera bitartean jokalariak nahasita ariko dira. Hau da, astebururo talde ezberdinak sortuko dira eta euren artean lehiatuko dira. Eta ilbeltzetik aurrera kluben arteko partidak jokatuko dira. 3. jardunaldia Irurtzungo kiroldegiak hartuko du. Lehen partida 11:00etan jokatuko da eta bigarrena 12:00etan.

Espeleologia

6. jardunaldia jokoan Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 6. jardunaldia jokatuko da igandean Altsasuko Dantzalekun.

6. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun
10:30ean Dantzaleku – Urdiain
11:30ean Tipi Tapa – Lagun Artea
11:30ean Kaixo – Txartel
12:30ean Sayas – Arbizu
12:30ean Mediolanum – Sutegi

Mendi txirrindularitza

J.C. IRIGOYEN.

Sakandarrak ongi 22. Lizarrako Hiria Klasikoan

Despeditu da Nafarroako BTT edo mendi txirrindularitza denboraldia. Igandean 22. Lizarrako Hiria Klasikoa-Open Diario de Navarra jokatu zen, 31 km-ko proba. MSC Powerbikes taldeko Patxi Cia izan zen garailea (1:37:19). Conor WRC taldeko Mikel Otxoa izurdiagarra 30.a izan zen (1:37:20) eta Rueda Libre taldeko Mikel Irigoien 33.a izan zen (1:38:49).
Kadeteek 19 km-ko proba zuten aurrez aurre. Quesos Albeniz taldeko Asier Juanez altsasuarra 15.a sailkatu zen (1:23:56), eta talde bereko Alex Uncilla 33.a (1:42:03). Kimuetan (6 km) Katealdeko Mikel Uncilla 5.a sailkatu zen (12:15).

Kiroldegia

Sakanako kirolari onenak zein diren erabakita

Abenduaren 12an jasoko dute saria, 20:00etan Arruazun burutuko den ekitaldian

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak bi urtetik behin ematen ditu kirolari onenen sariak. Aurten 2013 eta 2014ko Sakanako kirolari onenen sariak banatuko dituzte, abenduaren 12an, 20:00etan, Arruazuko herriaren etxean eginen den ekitaldian.

Epaimahaiak nahikoa lan izan du kirolari onenak nortzuk diren erabakitzerakoan, zorionez Sakanan puntako kirolari ugari daudelako. Azkenean, Joanes Bakaikoa, Maialen Aramendia, Aritz Munarriz, Sara Lizarraga, Javi Moreno, Mari Gwen Davies, Sakanako Irristaketa Taldea eta Andra Mari ikastolako herri kirol taldea dira talde aukeratuak, eta Luis Martil eta Ricardo Lopez de Sabando aipamen bereziak. Zorionak guztiei.

Maialen Aramendia eta Joanes Bakaikoa.

Sakanako kirolari onenak

18 urte baino gutxiagoko mutilak: Joanes Bakaikoa (pilotaria, Etxarri Aranatz)
Pilotari jubenil etxarriarrak palmares polita du. Besteak beste: 2014ko Nafarroako jubenil mailako buruz buruko txapelduna; 2014ko jubenil mailako Nafarroako Binakako txapeldunordea, Medinarekin; 2014ko Gazteen Espainiako Txapelketako eskuzko binakakoan urrezko domina, Sarasarekin; Altsasuko 45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko txapeldunordea; Lodosako Torneoko txapeldunordea, Mariezkurrenarekin eta Javier Hernandez Memorialeko txapelduna. 2013an Nafarroako Gazte mailako Lau T´erdiko txapela irabazi zuen eta aurten finala jokatuko du, abenduaren 3an, Lasoren kontra.

18 urte baino gutxiagoko neskak: Maialen Aramendia (txirrindularia, Iturmendi)
Txirrindularitzan jarraitu ahal izateko Burunda klubetik Gipuzkoako Caf Transport Engineering taldera egin du Aramendiak. 2014an emaitza ederrak lortu ditu, tartean: Nafarroako kadete mailako txapelduna da, Tafallan jokatutako lasterketan lehen nafarra izan ondoren. Bestalde, Nafarroako kadete mailako erlojupeko txapeldunordea izan zen Iturmendin. Horretaz gain, Jaenen jokatutako Espainiako kadeteen mailako Txirrindularitza Txapelketan hirugarrena izan zen eta brontzezko domina jaso zuen. Pista txirrindularitzan ere ibili da, primerako emaitzekin: Galapagarren jokatutako Pistako Espainiako Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen 200 metroko abiadura proban eta 500 metroko abiadura proban.

18 eta 35 urte arteko gizonak: Aritz Munarriz (mendi korrikalaria, Etxarri Aranatz)
Aritz Munarriz duela gutxi hasi zen mendi lasterketetan, eta epe motz honetan sekulako progresioa egin du. 2014ko emaitza batzuk aipatzearren, 14.a izan zen Zuzenien igoera bertikalean, (2,8 km), 21.a Sara Korrika Trailean (25 km), 28.a Berako maratoi erdian (21 km), 4.a Apuko Long Trailean (65 km), 164.a Zegama-Aizkorrin (42 km), 6.a 2KV Collaradan (17 km), 5.a Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean (5 km), 15.a Olatzagutia-Urbasan (23,2 km), 5.a Etxarriko mendira joan-etorrian (10 km), 10.a Anboko Km Bertikalean (3,8 km) eta 2.a Galdames igoeran (6,5 km).

18 eta 35 urte arteko emakumeak: Sara Lizarraga (borroka librea, Arbizu)
Borroka librean eta borroka olinpikoan makina bat urte daramatza Sara Lizarraga arbizuarrak. Egun Burlata Borroka Klubeko kidea da. Madrilen jokatutako 2014ko Espainiako Junior Mailako Borroka Olinpikoko Txapelketan Sara Lizarragak brontzezko domina kolkoratu zuen 51 kiloko junior mailan.

35 urte baino gehiagoko gizona: Javi Moreno (korrikalaria, Altsasu)
2013an Sakanako Atletismo Kopako txapelduna izan zen, eta abenduaren 8ko Barricarte Memorialaren emaitzak kontuan hartu gabe, aurtengo kopako buru bera da oraingoz. 2014an emaitza politak izan ditu: Lodosako San Blaseko X. Krosa irabazi du, Zumaiako XXX. herri lasterketan lehena, Beasaingo herri lasterketan bigarrena, Portugaleteko Miliako txapelduna, Ziordiko Herri Krosean laugarrena, Aitzkozar krosan hirugarrena, Zornotzako Miliako txapelduna, Ergoienako Birako txapelduna, Sakanako Herri Lasterketan laugarrena eta abar.

35 urte baino gehiagoko emakumea: Mari Gwen Davies (korrikalaria, Urdiain)
Sakanako Emakumeen Atletismo Eskolako partaidea da, eta azkenaldian lasterketa askotan parte hartzen du. Emaitza politak lortu ditu. 2013ko Aitzkozar lasterketan 3. sakandarra izan zen, eta 2013ko Barricarte Memorialean 2. sakandarra. 2014ko Ziordiko lasterketan hirugarrena sailkatu zen. 3.150 emakume lehiatu ziren Donostiako Lilatoian, eta Mari 43.a sailkatu zen.

Kirol talderik onena: Sakana Irristaketa Taldea
Dituzten mugak gaindituz, besteak beste, pista baten beharra, Sakanako irristalariek maila bikaina ematen dute, urtero, parte hartzen duten txapelketetan. Juli Acebes entrenatzailearen begiradapean entrenatzen dute. 2014ko Nafarroako Pista Irristaketa Txapelketan, Anne Lapuentek 1.000 metro linea eta 2.000 puntuko probak irabazi zituen, eta Unai Villalobosek 500 metro sprinta eta 1.500 metro linea probak irabazi zituen. Sakana Irristaketa taldeko 8 irristalari sailkatu ziren Espainiako Pista Irristaketan lehiatzeko. Bestalde, Nafarroako Abiadura Txapelketan Anne Lapuentek urrezko 2 domina kolkoratu zituen 1.000 metrotan eta 2.000 metrotan eta Ander Villalobosek urrezko bi domina, 500 metro sprintean eta 3.000 puntuetan, eta brontzezkoa 1.500 metro linean. Sakanako 7 irristalari sailkatu ziren Espainiako Abiadura Txapelketarako. Espainiako Txapelketei dagokienez, Anne Lapuentek brontzezko domina lortu zuen ESpainiako kimuen mailako 1.000 metro sprint proban.

Euskara gehien bulkatu duen taldea: Andra Mari ikastolako herri kirol taldea
Entrenamenduak, txapelketetan, jardunaldietan, garraioa erabiltzean... euskaraz egiten dute beti Andra Mari ikastolako herri kirol taldekoek. Aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jolasetan lan ederra egin zuten Andra Marikoek, Iñigo Aritza ikastolakoekin batera. Kimuen proba konbinatua Iñigo Aritza A izan zen txapelduna eta Andra Mari txapeldunordea. Haurren mailako konbinatuan 3.a Andra Maritik sortutako Putterri sailkatu zen, eta kadeteetako konbinatuan Andra Mari txapeldunordea. Sokatiran, haurren mailako irabazlea Iñigo Aritza izan zen eta kadeteetako txapelduna Andra Mari. Eta Nafarroako Kadeteen Trontza Txapelketan Andra Mariko Xabier Basabe eta Adrian Joao txapeldunordeak izan ziren.

Izendapen bereziak: Luis Martil (karatea, Irurtzun) eta Ricardo Lopez de Sabando (pilota, Altsasu).
Luis Martil karateka gerriko beltza da, 5.DAM mailan. Karate eskoletako irakaslea izan da urte luzez Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun eta Uharte Arakilen. 40 urte eman ditu klaseak ematen eta karatea sustatzen. Irurtzungo karate txapelketako antolatzailea da, eta bere ikasle izandako 6 karateka aritu izan dira Nafarroako Kadete selekzioan.
Ricardo Lopez de Sabandok bizi guztia darama pilota sustatzeko lanetan. Olaztiko pilota eskolako arduraduna izan da urte askotan, eta Altsasun ere lan handia egina da. Iñigo Aritza ikastolan pilota eskolak ematen dizkie haurrei. Pilota eta herri kirolak bulkatzeko berak egindako lana, eskertzekoa.

Sakanako Herri Kirol Jardunaldia eta Sakanako Xake Txapelketa ate joka

Bezperan Sakanako kirolari onenen sariak banatu ondoren, Arruazuko herriaren etxeak Sakanako Xake Txapelketa hartuko du abenduaren 13an, 10:00etatik aurrera. Egunean bertan eman daiteke izena. Sakanako Xake Txapelketa, aldi berean, 1.900 ELO puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izango da. Bestalde, aurten Bakaikuko frontoian ospatuko da Sakanako Herri Kirol Jardunaldia, urte bukaerako festa, abenduaren 14an, 12:00etan, Bakaikuko frontoian. Aizkolariak, trontzalariak, harri jasotzaileak… ariko dira.

Nonerabili

AMAYA TABERNA
IRURTZUN
Menuarekin txupitoa edo kafea doan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA
ETXARRI ARANATZ
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA
ALTSASU
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia faktuaren irakurketa eta analisia doan.

EKIN
ALTSASU
100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IOSUNE MARAURI
ALTSASU
Bakarko sesioetan %10eko deskontua.

KIKI ARGAZKI DENDA
ALTSASU
15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

LURESU
ALTSASU
% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA
ALTSASU
%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDAIAZPIKOAK
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

kultura >>

EUSKAL DANTZAKO IRAKASLE BILA: Horretan ari da Lakuntzako Elai Alai dantza taldea. Dantzari lakuntzarrak trebatzen aritu nahi dutenek dantza taldearekin harremanetan jartzeko bi bide ditu: elaialaikuntza@gmail.com e-posta edo 646 403 120 (Eva).

Ergako ermitaren argazkia saritua

Socorro Alzueta Labianok ermitari laino artean ateratako argazkiari Conocer Navarra argazki lehiaketako epaimahaiak bigarren saria eman dio. 1413 argazki aurkeztu ziren lehiaketara. Abenduan banatuko dituzte sariak eta argazkilari irurtzundarrak 1.000 euroko balioa duen argazki materiala eta hotel batean asteburuko egonaldia irabazi du. Gainera, argazkia lehiaketako izen bereko aldizkarian argitaratuko dute.

Alzuetak "pozik" hartu du saria, "paisaia atalean oso lan onak zeudelako. Kalitatea du lehiaketak". Irurtzundarrak esan digunez, Trinitateko ermitaren argazkia Ergako tontorrerako erdi bidetik aterata dago. Batere ukitu digitalik gabe aurkeztu zuen lehiaketara. Argazkilaritzarena ez duela "serio" hartu eta "zortea" aipatu dizkigu. Hala ere, ez da aurreneko aldia Alzuetaren argazkiek saria jaso dutena. Joan den urtean Anbar garagardo etxeak antolatutako argazki lehiaketako lehen saria eskuratu zuen. 2011n Iruñeko Pamplona en femenino saria eskuratu zuen eta beste hainbat herrietakoak ere.

Bere lana ezagutzeko

www.flickr.com/photos/saltzueta/

Xaikok hiru kantu berri kaleratu ditu

Martxoaren 18an *Therapy* estreinako diskoa argitaratu ondoren Xaiko taldeak lan berria du esku artean, *Paila*. Euskal pailazo ezagunen hiru kanturen moldaketaz osatutako mini-cda da. Durangoko Azokan *Therapy* diskoa erosten duenari lan berria oparituko dio Xaikok. *Unblenble* abestia da singlea eta *Belekoi anderea* kantuarekin bideoklipa egin du taldeak. Xaikoko taldekideen artean daude Xabier Zelaia Zelayika eta Haitz Bujanda altsasuarrak eta Ziordian bizi diren Aguayiko eta Aguayo anaiak.

Leitza Rude Stationeko kolaboratzaile

Astelehenean argitaratu zen La Rude Station-en diskoa. Juantxo Skalariak bere anaia Peiorekin batera martxan jarritako musika taldearen aurkezpen txartela da diskoa. Hainbat laguntzaile izan dituzte, tartean Hiart Leitza arbizuarra. Skalariak taldean aritu ziren aipatu hiruak.

Profesionaletatik ikasten

Erkuden Ruiz Barroso

Sakana Animatika 3D enplegu eskola tailerraren helburuetako bat Nafarroan 3D industria sortzea da. Hortaz, garrantzitsua da industria honetan lan egiten dutenen lana, jarduera eta iritziak ezagutzea. Enplegu eskola tailerraren barne, lan praktiken barruan, profesionalen hitzaldiak daude.

Lehenengoa Angel Sandimas izan zen. Sandimasek Nafarroako 3D industrian lan egiten du, bakanetarikoa da.(…).

Merenduetara joan ziren bigarren hizlariak sakandarrak dira: Jose Mari Morcillo Morkots eta Manolita Thunders. Morkots eta Manolita duela bi hamarkada hasi ziren animazioan. Madrilera ikastera joan ziren, Fastasma deitutako akademia batean hasi ziren. Bertan, animazioaren oinarriak ikasi zituzten. Laster hasi ziren animazio telesailetan lan egiten. Dena dela, haien lana ez zen kreatiboa; izan ere, interkalatzeak ziren. Hau da, animatzaileek poseak egiten zituzten, mugimendu garrantzitsuak, eta haiek bitartean dauden mugimendu txiki guztiak egiten zituzten. Ekoiztetxeek sekuentziak ematen zizkieten, eta haien mugimenduak sortu behar dituzte. Etxean egiten zituzten lanak ziren. (…)

Altsasura itzuli ziren eta Cederna eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin animazio ikastaro bat sortu zuten, etorkizunean ekoizpen etxe bat sortzeko nahiarekin. Taldea egitea lortu zuten, eta ikastaroa amaitu ondoren Koxkorron enpresa sortu zuten. Garai horretan ordenagailuarekin animazioei koloreak jartzen hasi ziren, eta prezioak jaisten hasi ziren. (…) Lan gehiegi egiten zuten, haiek egindako lanei ez zieten behar zuten garrantzia ematen, nekea eta prezioak gero eta baxuagoak zirela-eta Koxkorron desegitea erabaki zuten zazpi urte ondoren. (…)

Orain Animazio Digitala egiteko ikastaroa eskeini dute Altsasun, apuntatzeko epea dagoeneko amaitu da baina beraiekin kontaktuan jarri nahi izanez gero, hemen duzue telefonoa: 646720133 (Amai Taldea). **Osorik: www.guaixe.net**

bazterretik

Aritz Viñas

Blues Pills

Gaur talde berri bati buruz hitz egitea gustatuko litzaidake, baina hasteko eskerrak eman behar dizkiot lagun on bati esandako taldea erakusteagatik.

Gaur Blues Pills taldeari buruz hitz egitea gustatuko litzaidake, talde gaztea baina indar handikoa. 2011n sortu zen talde hau, eta 20 urte besterik ez zuten lau lagunen eskuetatik irten zen proiektu hau.

Proiektu berezia esango nuke, 2011n sortutako talde bat, Aretha Franklin, Led Zeppelin, Jimmy Hendrix... bizi izan ziren garaiera eramaten gaituztelako. Horixek dira talde honek erreferentziaz hartutako taldeak, eta oso nabarmen azaltzen dira haien abestietan.

Oso esanguratsuak dira talde honen ahotsa eta gitarra, lehen esan bezala ahotsa Soul-Blues estilokoa, Blues-Rock gitarrarekin nahasten dira baxuaren eta bateriaren laguntzaz, eta doinu ikaragarriak sortzen dituzte. Taldea Devil Man abestiarekin (Youtuben eskuragarri) aurkeztu zidaten, eta abestiaren sarrera kristona iruditu zitzaidan; ahotsa bakarrik entzun dezakegu, baina sekulako ahotsa da entzuten dena. Hortaz geroztik talde hau nire buruan sartu zen eta atera ezinik dabil.

Haien lehenengo kontzertu ezagunak 2013an izan ziren Roadburn eta Deserfest Berlin izan ziren apirilean. Honekin eman zioten hasiera Europatik egin zuten lehengo birari. Horietaz aparte beste hainbat udako kontzertutan parte hartu zuten urte horretan.

Aurten Australiatik gonbidatu zituzten, bertan Kadavar taldeari bere bueltan laguntza emateko. Australiatik bueltan taldea estudiora sartu zen haien lehenengo diskoa grabatzeko asmoz, baina hori baino lehenago Norvegiatik pasatu ziren beste tour bat egiteko.

Esan beharra dago, talde honen indarra ikus daitekeela, bi bira handi izan dituztelako Europan zehar eta Norvegian disko bat ere grabatu gabe zutenean. Tour hauek bukatuta atera zuten haien lehenengo EPa Devil Man, eta aldi berean zuzenean grabatutako beste EP bat.

Lehenengo diskoa aurtengo uztailean kaleratu zuten, Blues Pills izenarekin. 10 abesti gordetzen ditu eta taldearen estiloa erakusten digu; eta, garrantzitsuena, horretaz disfrutatu dezakegu.

Besterik gabe, berriz eskertu nahiko nioke talde hau ezagutzera eman zidan pertsonari, eta espero dut zuei ere niri bezain beste gustatzea.

Kantu ikasleak kontzertura

Larunbatean, 20:30ean, Altsasuko elizan, Etxarri Aranazko musika eskolako kantu ikasleen kontzertua

Etxarri Aranazko musika eskolako kantu ikasleek kontzertua eskainiko dute larunbatean Altsasuko elizan, arratsaldeko zortzietako meza ondoren, 20:30ean gutxi gorabehera. Itziar Maizen zuzendaritzapean, Angel Mari Urrestarazu, Edurne Artieda, Rosa Igoa, Nekane Betelu, Puri Alzelai eta Juli Alvaro ariko dira kantuan. Kontzertua anitza izango da, errepertorio klasikoko kantuak eta herri kantuak eskainiko baitituzte, bai bakarka eta baita taldean, polifonian.

"Kontzertu berezia izango da, estilo anitzekoa. Aurreko urtean, ikasturtea despeditu genuenean, kontzertu hau bera eskaini genuen Etxarri Aranatzen eta arrakastatsua izan zen, kanta oso ezberdinak eskaintzen baititugu. Jendeari gustatu zitzaion, eta zuzendariak kontzertua Altsasun eskaintzea zuen buruan. Larunbatean izanen da, eta bertara gerturatzera gonbidatzen ditugu sakandarrak, tarte ederra pasatuko dugulako" adierazi digu taldeko kide Juli Alvarok.

Denetarik eskainiko dute. "*Salvadorren heriotza* kantua polifonian, oso ederra, gero musika sakrako abesti pare bat eta baita kanta klasikoak. *Cancionero gitano*rekin ere ausartu gara" gaineratu du Alvarok.

Rockez eta magiaz lagundutako Txanogorritxoren bisita bikoitza

Larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean eta domekan, 17:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Kapa gorri txanoduna duen neskatilari Txanogorritxo deitzen diote. Gaixo zegoen amona bisitan joan zen Txanogorritxo, hura sendatzeko on eginen zioten saski bete produktu aldean zituela. Bidean barna Txanogorritxo rock kantuak abesten joan zen.

Rock kantuak, bai. Tdiferencia antzerki taldeak asteburuan Sakanara ekarriko duen antzezlaneko protagonista rockzalea delako, eta jolasteko eta zalapartarako irrika duelako. Antzerkia, musika eta magia uztartuko dira ikuskizunean, guztiak ere, beldurra, zeloak, emozioak, eta abarrak kudeatzeko bitartekorik aproposenak direlako. Migel Molina zuzendariaren esanetara ariko dira Eva Azpilikueta, Monika Latorre eta Ainhoa Ruiz aktoreak.

El Drogas elektroakustikoago

Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Enrique Villarrealek *Demasiado tonto en la corteza* diskoa aurkezteko bira El Drogas Rhythm & Blues Band formatuarekin osatu du. El Drogasek eta bandak rhythm and bluesean, jatorri amerikarreko rock and rolla eta soinu elektroakustikoagoak dituen errepertorioarekin etorriko da Olatzagutira bihar.

Zazpi musikari igoko dira eszenatokira: Brigi Duke (bateria), Eugenio Aristu, El Flako, (baxua eta koroak), Txus Maravi (gitarrak), German San Martin (teklatuak), Selva Baron (koroak), Patricia Greham (koroak) eta Enrique Villarreal, El Drogas, (ahotsa, armonika eta gitarra akustikoa eta elektrikoa). El Drogasen azken diskoko kantekin batera Barricadaren eta Txarrenaren doinuak eskainiko dituzte. Riff erraz eta rokanroleroekin batera, teklatuak eta koroak, kantu ezagunei bestelako dimentsioa emateko.

Hitzez hitz Poesia sustatuz

LARRAITZ AMADOZ

Maitasuna, erlijioa, edota egunerokotasunean bizitzen diren kontuak izan ziren ardatz poesia errezitaldian. Bederatzigarren urtea izan zen pasaden larunbatekoa eta uhartear ugari gerturatu ziren jubilatuen elkartera. Blanca Arrizabalaga, Mercedes Viñuela, Ventura Ruiz, Iosu Castillo, eta Alfonso Muro izan ziren errezitaldiko olerkariak. Mikel Auzmendi Etxarriarrak, berriz, jarri zuen musikaren doinua gitarrarekin. Horretaz aparte, poesia baliatuz antzerkiaz gozatzeko aukera izan zuten.

LARRAITZ AMADOZ

Dantza dantzari

Orritz dantza taldeko kideek eta bere kide izandakoek ospakizun eguna izan zuten larunbatean. Taldeak dantzan eman duen mende laurdena dakiten moduan ospatu zuten, dantzan. 80-90 bat dantzari izan ziren hainbat taldetan banatuta dantzan aritu zirenak. Ospakizuna borobiltzeko 150 bat pertsona afaltzera elkartu ziren.

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria	38%	96%	96%	73%	80%	68%	40%
Min.	10	10	9	8	6	3	2
Max.	13	12	12	9	8	6	7

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	20.5	9	13.1
Etxarri A.	18.9	8.1	14.3
Altsasu	18	5	9
Aralar	12.4	4.6	3.7
Urbasa	15	3	15.4

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
29	6	14	22

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
www.ventanasegoki.com
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixeguaixe

Azaroko bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:
1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

AZAROAK 28-29 -30
Sakatxartel asteburua

Asteburu honetan erabili Beleixeguaixe txartela eta sari hauen zozketan parte hartuko duzu!

SARIAK
1.saria: Artazako kanpinean 2 lagunentzako gau bateko egonaldia etxola batean eta 2 saio Finlandia gunean
2.saria: Iortia Kultur Guneko zinemarako hilabeteko 2 bono + Beleixeguaixe txartel bat

>>11 galdera

Morkots eta Jartur

Komikilari altsasuarrak

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

JABI TRAPER

Sakana Morkotsen eta Jarturren begiez 20 urtez liburua Guaixen (948 564 275) edo liburu dendetan erosi daiteke. Prezioa: 12 euro (bazkideek 10).

1. Aspalditik ez zarete Guaixeko bulegotik pasatu... Zer dela eta orain gurean?

Morkots: 2012ko martxoaz geroztik, biok elkarrekin egin genuen azken komikia. Orain, Guaixeren 20 urtetan egin ditugun komikien bilduma egiteko gonbitea jaso dugu Guaixetik.

Jartur: Morkotsek aipatu zidan komiki bildumarena eta gustatu zitzaidan. Guk egindakoa modu fisikoan geratuko da, bilduta eta polita.

2. Zuetatik nork argitaratu zuen lehendabizi Guaixen?

Jartur: Ni. Guaixe hilabetekaria zenean orri oso bat neukan komikia egiteko. Ondoren lan egiten hasi nintzen eta denbora bat eman nuen komikirik publikatu gabe.

Morkots: Hilabetekari zenean soilik pare bat komiki argitaratu nituen. Astekari bilakatu zenean hasi nintzen Guaixerako komikigintzan.

3.Nola deskribatuko zenukete bata bestearen estiloa?

Jartur: Uste dut ez dudala estilo definiturik.

Morkots: Gaiei begira Jarturrek asko ukitzen ditu krisia, lanaren gaia…

Jartur: Komiki asko Gamesatik bota gintuztenean idatzi nituen, enpresa itxiera asko izan zirenean.

Morkots: Grafitero estiloa du… Jarturren estilo monigoteroa (kar kar)!

Jartur: Nik Morkotsen tematikaz… ez dut ideiarik ere! Hori bai, teknikoki, askoz ere depuratuagoa da.

4. Bata bestearen karikatura egin duzue liburuan?

Morkots: Ez, bion artean egin genituen gure karikaturak.

Jartur: Japoniar sandaliak berak egin zituen, eh?

Morkots: Jartur tipo elegantea da, eta ni traza hutsa!

5. Nola marrazten duzue? Paperean, ordenagailuz...

Jartur: Ni tradizionalagoa naiz. Morkots tabletarekin aritzen da…

Morkots: Gehienbat ordenagailuarekin eta tabletarekin marrazten dut, baina gutxika uzten ari naiz. Paperera bueltatu nahi dut. Nire lehendabiziko komikiak akuarelaz eginak zeuden, baina gero gehienak ordenagailuz, azkarragoa delako. Trazua berdina da, arkatzarekin edo errotulagailuarekin margotzea bezalakoa delako.

Jartur: Nik ez dut salto hori eman. Garestiagoa ere bada. Baina ez ditut Morkotsek bezainbat ordu margotzen sartzen. Morkotsek bere lanbidea du, animazioarekin eta beste dabil.

Biak: Hori bai, normalean azken unean egiten genituen komikiak. Azkartasunaren eta azkeneko unearen teknikakoak gara gu (kar kar).

6. Zein da komikiak egiterakoan zuen inspirazio tenplua?

Jartur: Bizi duzuna, ikusten duzuna, entzuten duzuna, dituzun paranoiak, zure buruak esaten dizuna…

Morkots: Afalondoan esaten diren tontakeria horiek, lagunek aipatutakoak…

Jartur: Bai, baina zaila da gero komikira pasatzea, sarritan gero ez diozu unean ikusi diozun grazia ikusten. Eta gero ere txisteak, esaera zaharrak eta beste lapurtu ahal dituzu (kar kar).

7. Guaixerako idazteak baldintzatzen zintuzten?

Jartur: Honbre, halako autozentsura bat egiten genuen…

Morkots: Bai, komikiak ez dira horren basatiak edo gordinak. Gaia potoloak eta gogorrak badaude, baina tratatzerako orduan kontuan izan behar duzu adin ezberdina duen publikorako ari zarela.

8. Nola hautatu dituzue zinta liburuxkan jasotako komikiak?

Jartur: Nik egin nuen ia guztia jaso dut.

Morkots: Nik selekzioa egin dut. Gaiari begiratuta orokorragoak zirenak hautatu ditut, egun alboan albistea izan gabe ulertu daitezkeenak. Komiki asko atenporalak dira: AHT, baratzearen munduko hainbat… Ongi pasatu dut komiki guztiak egiten, gustura geratu naiz.

Jartur: Elkarrekin egin genuen komikiarekin, tenpluarenarekin, pasatu nuen hobekien. Batzuekin gusturago geratzen zara.

10. Guaixea aspergarriagoa da zuek gabe?

Morkots: Askoz gehiago!

Jartur: Bai. Gu jarraitzen gintuen jende asko dago.

Morkots: Begirada grafiko kritiko hori falta da eta faltan botatzen da. Ez begirada kritikoa, testuan egiten delako.

11. Zergatik erosi beharko litzateke zuen zinta liburua?

Jartur: Nik uste nuen guretzako oparia zela!

Morkots: Erosleak txiste eta kirtenkeria bilduma eramango duelako etxera, Sakanako garai bateko eta egungo kronika grafikoa.

Jartur: Niri Alfredok liburuxkan idatzitako aurkezpena asko gustatu zait. Beti azken orduan ibiltzen nintzen eta aipatzen du (kar kar).

Morkots: Niri Raf Atxurik egindakoa baita. Uste dut inoiz helduko ez zaion urdaiazpiko baten zain dagoela (kar kar)!